

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

LURRALDE GARAPEN JASANGARRIRAKO ARLOA

Zerbitzua: Hiri Garapena

Zerbitzu Unitatea: Hirigintza

Ibilgailu motordunak hornitzeko instalazioak ezartzeko plan berezia

Denon ezaguerarako jakinarazten da ezen, alkate-udalburuaren 2026ko ekainaren 1eko 787 Dekretuaren bidez, hasierako onespena eman zitzaiola Ibilgailu Motordunak Hornitzeko Instalazioak Ezartzeko Plan Bereziari.

Hogei (20) eguneko epean, ALHAOn dagokion iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, espedientea jendearen eskura egongo da Lurralde Garapen Jasangarrirako Arloan (Herriko Plaza z.g., 3. solairua), euren burua interesduntzat dutenek espedientea aztertu eta egoki irizitako alegazioak aurkeztu ahal ditzaten.

Era berean, Plan Bereziaren edukia esteka honetan eskuratu ahal izango da:

<https://laudio.eus/eu/udala/araudia-eta-informazio-juridikoa>.

Laudio, 2026ko ekainaren 3a

Alkate-udalburua

AINIZE GASTAKA MARTÍNEZ